

**2015EKO APIRILAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hirua.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamabosta.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika.

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2015eko martxoaren 26ko aktaren onespena.

2015eko martxoaren 26ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- KALE ASFALTAKETA Baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea kale asfaltaketa obrak egiteko.

Ezagutzera eman dira ezaugarri berezianak, hau da:

“**Lehenik.** Kale asfaltatze lanak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 66.115,70 € BEZ kanpo, 80.000,00 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea: 2 aste.*

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:*

a) *Enpresa sailkapena: G taldea, 4 azpitaldea, b kategoria.*

6.- *Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.*

7.- *Proposamen eredia: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.*

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.*

9.- *Adjudikazio irizpideak:*

- *Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.*

60 puntu emango zaizkio eskaintza onenari eta gainerakoei puntu bat kenduko zaie eskaintza onen horrekiko %1eko diferentziako.

- *Proposamen teknikoa: 40 puntu.*

Planteamendua, antolaketa, obrara epekako plangintza, obrari atxikitako bitarteko material eta giza baliabideak; 20 puntu.

Lanek erabiltzaileei, zirkulazioari, zerbitzuei, aparkalekuei eta abarrengan duten eraginaren analisia eta arazo horiek gutxitu edo konpontzeko egindako proposamenak; 20 puntu.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plica irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte."*

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- PARKE ETA LORATEGIAK MANTENTZEA. Baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea parke eta lorategiak mantentzea egiteko.

Ezagutzera eman dira, ezaugarri berezienak:

*“**Lehenik.** Enplegu-zentro berezientzat zuzendua dagoen, Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua prozedura irekia eta izapidetze arruntaren bidez kontratatzeko baldintza plegu administratiboa nahiz baldintza plegua teknikoa onartzea.*

***Bigarren.-** Deialdi publikoa egitea iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratuz, ondorengo xehetasunen berri emanez.*

- Lizitazio prezioa: 247.933,88 € / urteko, BEZ barne.
- Enpresa sailkapena: Grupo 0, Subgrupo 6, Categoría B
- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Web orrian.
- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.
- Egikaritze epea: 3 urte beste 3 urte luzatzeko aukerarekin.
- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.
- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita 40 egunetan.
- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da. Eguna eta ordua kontratzailearen profilean adieraziko da.
- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.
- Adjudikazio irizpideak: Proposamen ekonomikoa: 51 puntu
Zerbitzuaren ezaugarriak: 35 puntu
Baldintza teknikoarekiko hobekuntzak: 10 puntu
Lorategi-guneak hobetzeko ikerketak: 4 puntu

4.- GURUTZE GORRIA. Gurutze Gorriak Udalari konpentsatu beharreko kopurua zehaztea, Igartza Oleta, 10eko lokala egokitzeko Udalak ordaindutako gastuen arabera.

Ezagutzera eman da, partehartze, berdintasun, migrazio eta hezkuntza batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA.-Gurutze Gorriak Udalari konpentsatu beharreko kopurua zehaztea, Igartza Oleta, 10eko lokala egokitzeko Udalak ordaindutako gastuen arabera.

AURREKARIAK

1.- 2014ko urtarrilaren 14an Udalak Goierriko Gurutze Gorriarekin sinatu zuen hitzarmena, eta honen Bosgarren estipulazioak ondorengoa dio:

“Udalak Igartza Oleta 10ean egindako egokitzapen gastuei erantzuna emanez, Gurrutze Gorriak II eranskinean aurkezten diren zerbitzuak eskainiko ditu eta hiru hilabeteka konpentsazioak egingo dira aipatutako obren gastuak estali arte”.

2.- Obra bukatu eta gero, ikusi da ordaindutako kopuru guztia 50.102,54 eurokoa izan dela.

Nolanahi ere, kontsideratzen da Gurutze Gorriari ezin zaizkiola egotzi ondorengo gastuak: impermeabilizazioa (2.964,50 €), proiektua idatzi eta obra zuzentzea (1.996,50 €, 2.783,00 €) eta ukitu eta defektuen zuzenketa (1.998,85 € eta 610,87 €).

Hau guztia ikusirik, Partehartze, Berdintasun, Migrazio eta Hezkuntza Batzordeak, Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo

PROPOSAMENA

39.748,82 eurotan finkatzea, Gurutze Gorriak Udalari konpentsatu beharreko kopurua, II Eranskinean azaltzen diren zerbitzuak emanez, hitzarmenaren Bosgarren estipulazioan aurreikusitakoaren arabera.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da partehartze, berdintasun, migrazio eta hezkuntza batzordeak egindako proposamena.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.